



**DYA**  
GIPUZKOA

# GIPUZKOAko EGUNKARIA

EGUNKARI INDEPENDENTEA, GIPUZKOARREN SOLIDARITATEAREN MENPEKOA

## Bost Machine Tools Company, S.l.u.-(e)k gurekin kolaboratzen jarraitzeak, BBSa Gipuzkoako ikastetxetara eraman du



Zu bezalako pertsona eskuzabalen laguntzari esker, DYA Gipuzkoaren etorkizuna bermatua dago.

Gipuzkoarrak eskuzabalak zaretela 1973tik modu etengabean errepikatzen doan berri on bat da.

Zuen ekarpen ekonomikoek ahalbidetzen dituzte, hilabetero, gure lan humanitario eta gizarte-lan garrantzitsua: egokitutako lekualdatzeak, mugikortasunari laguntza, osasun la-

rrialdiak, erreskateak eta bilaketak, zaintza zerbitzuak...

2017an gainera, zerbait berezia ahalbidetu digute: Bihotz Biriken Suspertzea (BBS) erakustea Gipuzkoa osoko lehen hezkuntzako haurrei.

Zure laguntzarik gabe posible izango ez zen beste proiektu aitzindari bat.

Editoriala

### JON CENCILLO | PRESIDENTEA

Duela 45 urte, 1973ko ekainaren 21ean, "Diario Vasco"-k DYA Gipuzkoaren abiaratzearen berria argitaratu zuen.

Gipuzkoarren solidaritateak sortutako Erakunde bat da eta urteak aurrera joan ahala, honen existentzia justifikatzen duten titularrak metatzen joan dira:

"Gidariaren zerbitzura jartzen dira edozein arazo edo istripu izanez gero, jai egun eta bezperetan" (1975eko ekaina).

"DYAk duela gutxi zerbitzu berri bat sortu du, Koordinatutako Larrialdiak izenekoa, Gipuzkoako larrialdi guztiak koordinatzera zuzendua..." (1980ko apirila).

"DYAk gaur Urumeako eskualdeko anbulantzia berria aurkezten du" (1988ko otsaila).

"DYA Gipuzkoak Lehen Sorospenetako eskuliburua argitaratzen du" (1993ko urria).

"DYAk Arrateko jaietan 60 pertsona zaurituri arreta eman zien" (2000ko iraila).

"DYA Gipuzkoarentzat ISO 9001:2000 Kalitate ziurtagiria" (2008ko urtarrila).

"Nahia Proiektua, DYAk lanpara miragarria" (2016ko maiatza).

Itxaropen hitzak dira, eta hauen atzean lau hamarkada baino gehiagotan zehar DYA Gipuzkoak laguntza eskeini dien ehundaka mila pertsona daude.

Hauetatik 30.903 azken urtean.

Horregatik, beste behin ere laguntza eskatu behar dizugu.

Kolaborazio ekonomiko hau, mugikortasun laguntzetarako, trafiko istripuetako zaurituei laguntza eman eta lekualdatzeko, erreskateetarako, ubide-zainketetarako, zaintza zerbitzuetarako... beharrezkoa den guztian laguntza ematen jarraitzeko berehala erabiliko duguna.

Mesedez, Gipuzkoan berri onak izaten jarraitzeko zure laguntza izan dezakegu? Mila esker.

### ZURE LANPARA LOR EZAZU

Desgaitasuna duen pertsona bat errehabilitazio saio batera astero eramatea 156,46 euro dira. Horregatik, zure ekarpena kantitate hori baino handiagoa izanda, zure eskuzabaltasuna sinbolikoki eskertzeko argi ahula duen lanpara eramangarri bat emango dizugu.